

# Liburuak


KRITIKA

## Maiakovskiren musak

Helduen literatura

Igor Estankona

Titulu futurista gora-behera, ez da liburu hotza Leire Bilbaorena. Scannerra pasatzen die ohiturei eta harremanei, eta heroi izan nahi ez dutenen poesia xamurra dakar: zati bat berea da, beste bat edozeinek sentitu dituen gauzen gainekoa. Horregatik Ondarroan hasi eta unibertsaltasunera egiten du *Scanner*-ek, ia konturatu barik. Errealismo zikinarekin batzuetan, minimalismoaren bidetik beste batzuetan, liburuak txikitako arora garamatza, eta gero infernu helduetara, azkenik berriro eguneroko gauza txikien balorea gogorazteko: “Gauza gutxi dira azken finean ezinbestekoak/ azalaren lehen mintzean gordetako beldurra bezala/ begiak zabalik edukitzea/ edo salbatuko garena pentsatzea”.



Salbaziorik nahi ez baina kontsolazioa bilatzen duen literaturaren bidetik –Otamendi, Meabe, Benito...–, Leire Bilbaok familiaren korapiloak askatzen ditu lehen orrialdeetan. Oihanera

*Scanner*.  
Leire Bilbao.  
Susa.  
84 orrialde.  
12,98 euro.

itzultzen da estreinako poemetan, hitzik ez zegoen garaira, gizakirik ere ez zegoen mantisaren eta emozioen historiaurrera. Aitaren figuraren absentsiaz eta amaren eskuaz hitz egiten diguten piezak gordinak eta ederrak dira: “egun batean Amak/ Aita garbitu/ eta atsedean unerik hartu gabe/ arrautza zaharra erruten/ eseriko da”.

Tristura barruntatzen da *Scanner*-en, maitasuna dago, bizitza dario. Zentzumenen mundutik idazten du Leirek errealitatearen gainean, eta horregatik ematen du gogoetak metafisikoak direla, taxi batean edo trenari begira idatzi arren. Esanahi sakonaren bila egindako bidaia eta gauza arruntak interesgarri bihurtzeko ahalegina txalogarria da. Horretan *Ezkatat* (Susa, 2006) poemarioaren jarraipena iruditut zait hau. Hizkuntza poetikoa doitu egin du beharbada, baina esentzia berbera da. Bukatua dago, perfekzionatua, bere tonua: leuna da eta, era berean, egonezin arraro bat sortzen du.

Aitzakiaren bat jarri behar banio *Scanner*-i, esango nuke uneka galdu egiten duela nerbioa, bizitzaren alderdi ilunean guztiz sartu barik egiten dituela zenbait itzulginguru, eta poema indartsuen ondoan gatz bakoak irakurri behar izateak penatu nauela. *Zuria, biguna*, edo *Desertua* edo *Oinen arteko butsunea* edo *Inventarium* poema liburuaren alderdi makalaren adibide dira. Trazu fin eta sinpledun zatietan gauza asko kontatzen ditu Leire Bilbaok. Sinpletasunari uko egin eta simbolo eta konplikazioetan galtzen denean, ostera, gozo sartu bai, baina ez da ailegatzten.



## 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa



www.gpuntua.com

QR kodea

